Eguneratzea: Hegazti-Gripea azkar zabaltzen ari da Europan

EFSAk txosten zientifiko bat argitaratu berri du, eta bertan ohartarazi du hegazti-gripea azkar zabaltzen ari dela Europan. Horrez gain, jakinarazi du oso arriskutsua dela gaixotasuna lehenago detektatu ez den herrialdeetan sartzea.

Europako zenbait herrialdek oso patogenoa den hegazti-gripearen 300 agerraldi baino gehiago jakinarazi dituzte 2020ko urriaren 16tik. Herrialde horiek dira, besteak beste, Belgika, Danimarka, Frantzia, Alemania, Irlanda, Herbehereak, Suedia eta Erresuma Batua.

Foku horien eraginpeko hegazti gehienak basatiak dira, baina, ECDCk eta hegazti-gripearen Europako erreferentziako laborategiak egindako txosten berri honen arabera, probabilitate handia dago birusa hegazti basatietatik eskortako hegaztietara igarotzeko.

Agentziak duela gutxi ohartarazi zuen arriskua zegoela oso patogenoa den hegazti-gripea mendebaldeko Europara zabaltzeko, udan baieztatutako agerraldiak egon baitziren ekialdeko Errusian eta Kazakhstanen, hegazti basatien eta etxeko hegaztien artean. Izan ere, eskualde hori Europara datozen uretako hegazti basatiek egiten duten udazkeneko migrazio-bidean dago.

Gogorarazi behar dugu oraingoz ez dela **gizakien artean kasurik detektatu agerraldi berrietan, eta gaixotasuna jendeari oro har transmititzeko arriskuak oso txikia izaten jarraitzen duela.**

Egon daitekeen arriskua aintzat hartuta, beharrezkoa da birusen bilakaera kontrolatzea, osasun publikorako edo animalien osasunerako propietate esanguratsuak dituzten birus berriak edo mutazio genetikoak agertzeko etengabeko arriskua ebaluatzeko.

Hori dela eta, EFSAk hau eskatzen die gaixotasunaren eraginpean egon daitezkeen herrialdeetako agintaritza nazionalei:

- Hegazti basatiak eta eskortako hegaztiak zaintzen jarraitzeko.
- Gizakiak infektatutako edo hildako hegaztiekin kontaktuan egotea saihesteko kontrol-neurriak ezartzeko.
- Arrisku handiko eremuetan arriskuak murrizteko eta biosegurtasuna indartzeko neurriak ezartzeko.

Foku bat baieztatu da gugandik gertu, Frantzian (Korsika). Horren ondorioz, eta kontuan hartuta hegazti basatien migrazio-bideak gure lurraldetik igarotzen direla, beharrezkotzat jo da **zenbait neurri espezifiko** hartzea EAEko udalerri batzuetan, duela gutxi jakinarazi zen moduan.

Europan oso patogenoa den H5N8 Hegazti-

Gripearen egoeraren eguneratzea

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta bertan, Frantzian, Belgikan eta Suedian oso patogenoa den hegazti-gripearen lehenengo kasuak antzeman direla adierazi du.MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta bertan, Frantzian, Belgikan eta Suedian oso patogenoa den hegazti-gripearen lehenengo kasuak antzeman direla adierazi du.

Europan hegazti-gripearen agerraldi berrien egoerari buruz **2020/11/06an argitaratutako eguneratzearen ondoren**, MAPAk **beste ohar bat** argitaratu zuen 2020/11/17an. Ohar horretan eguneratu egin du gaixotasun horren egoera eta **agerraldi guztiak bildu ditu, Frantzian, Belgikan eta Suedian izandako lehen kasuekin batera.**

ADNS erakundeak **oso patogenoa den (IAAP) hegazti-gripearen** fokuen **268 jakinarazpen** jaso ditu udazken honetan, **2020/10/17an** Holandan beltxarga mutu baten lehen kasua baieztatu zenetik. Besteak beste:

- 211 Alemanian
- 38 Herbehereetan
- 8 Danimarkan
- 5 Erresuma Batuan
- 5 Belgikan
- 1 Irlandan

H5N8 azpimota da gehien antzematen den (252 foku) oso patogenoa den hegazti-gripearen birusa, eta **EURLren** arabera, **uztailean Errusian eta Kazakhstanen** antzeman zen berbera da, baina **2020ko lehen erdian** EBn zirkulatu zuenaren **bestelakoa.**

Jakinarazitako foku guztien artetik, hau azpimarratu behar da:

- 255 foku hegazti basatietan jakinarazi dira
- 12 foku kortako hegaztietan
- 1 foku hegazti gatibuetan.

Frantziako agintariek gaur jakinaraziko dute oso patogenoa den hegazti-gripearen lehen fokua Korsikan hegazti gatibuetan, baina **dagoeneko adierazi dute zein neurri** hartuko dituzten arrisku-eremuetan gaixotasun horri aurre egiteko; hain zuzen, hauek izango dira:

- Kortako hegaztiak konfinatzea.
- Hegaztien pilaketa debekatzea.
- Ehiza-hegaztiak garraiatzea eta askatzea debekatzea.
- Ehizatzeko apeuak erabiltzea debekatzea.

Frantziako fokuaren hurbiltasunak eta hegazti basatiek gure lurraldean dituzten migrazio-ibilbideek handitu egiten dute arriskua maila handi/ertainera, MAPAk 2020/11/11n adierazi zuen moduan.

Horren ondorioz, **hainbat neurri zehatz hartu behar izan dira APA 2442/2006 Aginduaren II. eta III. eranskinetan jasotako udalerrietan**, eta agindu horretan jasotako hainbat udalerriri eragiten diete Euskadin.

Udalerri horietan, datozen asteotan aplikatuko dira neurri horiek. Autonomia

mailan, **Arabakoak dira** agindu horretako II. eta III; eranskinetan **arrisku bereziko** eremu gisa sartu diren **udalerriak**. Hauek dira:

- **Arratzua-Ubarrundia**
- **Barrundia**
- **Elburgo/Burgelu**
- **Legutio**
- **Zigoitia**

Hegazti-gripearen Europako egoeraren eguneratzea

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, Europan (Holanda, Alemania eta Erresuma Batua) hizpide dugun gaixotasunaren agerraldi berrien egoera bildu eta eguneratzeko, oso kutsakorra eta benetan aldakorra baita. Halaber, hainbat gomendio biltzen ditu, gaixotasuna kontrolatzeko eta hegazti basatiek beren migrazio-ibilbideetan hura ekartzea prebenitzeko.

Uda honetan zehar, H5N8 azpimotako oso patogenoa den hegazti-gripearen (IAPP) zirkulazioa egiaztatu da Errusiako hegoaldean eta Kazakhstanen, etxeko hegaztietan eta hegazti basatietan.

2005-2006 eta 2016-2017 aldietan jada bizitako olatu epidemikoak aintzat hartuta, **aurreikus daiteke** birusa Europako ipar-mendebaldeko **beste eremu batzuetara hedatzeko arriskua areagotu** egingo dela. Izan ere, **hegazti migratzaileek eremu horiek zeharkatzen dituzte** negu epelagoa igarotzeko leku baten bila, eta geldialdiak egiten dituzte eremu horietan, batez ere elikatu eta atseden hartzeko.

EBko erreferentziazko laborategiak (EURL) **H5N8 azpimotako IAAParen** presentzia egiaztatu du **nagusiki**, eta hori bat dator uda honetan Errusian eta Kazakhstanen jakinarazitakoarekin, baina **ez da EBn 2020ko lehen erdian** zirkulatu zuenaren berdina. Halaber, egiaztatu dute bai azken hori bai detektatutako H5N1 motakoa 2016an eta 2017an Eurasian eta Afrikan detektatutako H5N8-IAAPetatik datozela.

ADNSri, guztira, H5N8-IAAParen 28 kasu jakinarazi zaizkio, etxeko hegaztietan nahiz hegazti basatietan. Lehen jakinarazpena Holandan (2020/10/17), ondoren Alemanian (2020/10/30), eta, azkenik, Erresuma Batuan (2020/11/02).

Hegazti horien migrazio-ibilbideak gure lurraldetik gertu igarotzen dira. Hori dela eta, MAPAk gogorarazi du honako neurri hauek indartu behar direla:

- Hegazti basatiekiko kontaktu zuzena eta zeharkakoa saihestea.
- Zaintza pasiboa, hegazti-ustiategietan eta hegazti basatiei dagokienez.
- Susmo guztiak berehala jakinaraztea administrazio eskudunari (foru-aldundiak).
- Abeltzainak, ustiategietako albaitariak, ehiztariak eta, oro har, herritar guztiak sentsibilizatzea

oso patogenoa den hegazti-gripeari, horren aurkako neurriei, eta hegazti gaixo edo hilen berri emateko mekanismoei buruz.